Badakigu zein den gure historia. Gure unibertsitatea xix. mendean sortu zen, ingurune industrialean hazten ari zen hiri bateko gazteriari unibertsitateko prestakuntza eskaintzeko, horixe eskatzen baitzuen garai hartako Bilboko gizarteak. Unibertsitatea, bere ibilbidean, gizartearen prestakuntza beharretara egokituz joan da, aitzindaria izan da garrantzi handiko hainbat arlotan, besteak beste zuzenbidean, enpresan edo giza zientzietan. Gure gizarte aldakorrean bere printzipioei sendo eutsita, jakin izan du teknologiaren erronkari, globalizazioari eta berritu beharrari aurre egiten. Bere espiritu irekiari eta gizartearekiko konpromisoari esker, Deustuko Unibertsitatea gaur egun errealitatea da, Bilbon ez ezik, Donostian, Gasteizen eta Madrilen ere bai. Eta beti gidari eta zerbitzari bokazioz. Horrexek bihurtu du Deustu bikaintasun akademikoaren eredu. Gaur egungo Deustuko Unibertsitateak ia bostehun urteko tradizioa duen Jesusen Lagundiaren unibertsitateen lekukoa hartu eta haien misioa eguneratu du. Horretarako, ezinbestekoa da halako sustrai sakonak izatea eta, aurrera begiratuta, gure misioa etengabe eguneratzea.

Gure identitatearen ezaugarri dira errealitatearen kristau ikuspegia, izaera humanista eta pertsonaren arlo guztiak aintzat hartzen dituen prestakuntza osoa, transzendentzia ere gogoan duena. Humanismo hori ez da norbanakoan gelditzen; aitzitik, zerbitzua du osagai nagusi, hots, gizartea aldatzea eta justizia sustatzea du helburu, eta lehentasuna ematen dio aukerak sortzeari, kontzientzia soziala eta berdintasun eta inklusio printzipioak oinarri hartuta.

Ledesma-Kolvenbach paradigma deritzona da gure ereduaren gidaria: humanitas, utilitas, iustitia, fides. Haietako bat ere ezin daiteke bakarrik deklinatu eta denek osatzen dute gure hezkuntza-idearioa. Utilitasek lanbidean jarduteko gaitasun teknikoak, ezaupideak eta trebetasunak hartzen ditu bere baitan. Humanitasi esker, pertsonaren arlo guztiak garatzen ditugu. Iustitia, berriz, gizartearen egiturazko arazoen ardura modu proaktiboan hartzea eta konpontzeko konprometitzea da. Fides egia osoa bilatzea dugu, gizakiarengandik haratago doan helburua.

Gure pedagogiak beti bereizi ditu bost une: testuingurua, esperientzia, gogoeta, ekintza eta ebaluazioa. Denak dira beharrezko. Testuingururik gabe ez dago orainik, esperientziarik gabe ez dago edukirik, gogoetarik gabe ez dago zentzurik, ekintzarik gabe ez dago aldaketarik, ebaluaziorik gabe ez dago aurrerapenik. Horixe da gure hezkuntza-tradizioaren ondarea.

José María Guibert Ucín, S.J.

Errealitatearen ikuspegia eta Unibertsitateak dituen erronkak

Aldaketaren lastertasuna, sakontasuna eta dimentsio aniztasuna, eta ziurgabetasuna dira gure garaiaren ezaugarriak, mundu globalean. Esparru guztietan ageri dira, baita unibertsitatean ere.

UNIJES (Unibertsitate Jesuitak) osatzen dugun unibertsitateek, *Orientazio Estrategikoak* 2017-2025 dokumentuan, zenbait joera, erronka eta aldaketa identifikatu ditugu unibertsitate misioari desafio egiten diotenak eta epe labur, ertain eta luzean eragingo digutenak. Honako hauek, hain zuzen ere:

- Gizartearen aldaketa sakona, zientziaren eta teknologiaren iraultzak eragindakoa, inplikazio eta aldaketak ekarriko dituena eredu ekonomiko eta sozialetan, eta demografian.
- Nazioartekotze, globalizazio eta lehia prozesu azkartua, goi mailako ikasketen eskaeran eta unibertsitate zentroetako *stakeholder*retan eragina duena.
- ▶ Beste eskaera batzuk lanbide, gizarte, kultura eta prestakuntza arloetan.
- ▶ Testuinguru pedagogiko berriak, ikasteko eredu eta estrategia berriak, baita formatu, espazio eta baliabide berriak ere.
- Irakasleek nahitaez egokitu behar izatea oso testuinguru desberdinean hezi eta sozializatutako belaunaldietara.
- ▶ Jakintza sortzearen garrantzia gizateriaren gai nagusiei erantzuteko.
- ▶ Beste batzuekin batera lankidetzan aritu beharra, partekatutako misio baten barruan.
- Antolaketako egiturak aldatu beharra, eskaera, erronka eta desafio horiei guztiei erantzuteko.

Eta Jesusen Lagundiaren proiektuko kide izanik, gure dokumentu programatiko berrienetan erantzukizuna hartu dugu gure garaiko eztabaidetan eta mugetan egoteko, sarean lan egiteko eta Jainkoarekin, hurkoarekin eta izadiarekin adiskidetzen laguntzeko, behartsuenei begira jarrita.

Unibertsitatearen erantzuna

Deustuko Unibertsitateak egindako plan estrategiko guztiek ezarri dituzte mugarriak, eta haien goiburuek aztarna utzi dute gure izaeran. Lehenak Bibliako goiburua zuen: *Sapientia melior auro*. Fundazioko goiburu horrek argi adierazten du jakituria lortzeko gogoa dela unibertsitatearen eta unibertsitarioen ezaugarria, fedearen eta zientziaren arteko jakituria dialogikoa. Urrea baino hobea. Jakituria ezin da erosi, eta saltzerik ere ez dago.

Bigarren goiburuak hau zioen: *Pertsona da balioa*. Erabili edo manipulatzeko ahaleginen aurrean, pertsonaren balioaren nagusitasuna aldarrikatzen dugu, pertsona bakoitzarena. Pertsonen duintasuna, autonomia, askatasuna, erantzukizuna eta garapen osoa defendatzen ditugu, eta balio horiek unibertsitatean eta gizarte osoan onartu eta sustatu daitezen lan egiten dugu.

Hirugarren goiburuak honela zioen: Zerbitzua eta konpromisoa. Ezin dugu ulertu unibertsitatearen misioa bizileku duen eta zerbitzatu behar duen gizarteari lotu gabe. Geografiaren mugez gaindiko jarrera da eta denon ongia oinarritzat hartuta pentsatu eta jardutea eskatzen du.

Goiburu guztiek batu eta azpimarratzen dute arlo espezifiko eta osagarriren bat, unean uneko erronken isla direnak. Ez da ezer galdu; onartzen dugu gure historia, aberastu egiten gaitu eta garenaren erakusgarri da. Plan berriak eta haren goiburuak berriro elkartzen gaituzte azpimarratu nahi dugun balio baten inguruan eta gure zentzua sendotzen duen proiektu bati loturik.

Bultzada berria: Transforming our world together

Hori da unibertsitate jesuiten munduko topaketan (Bilbao 2018) aukeratu zen goiburua, asmo handikoa eta eragingarria. Orain Deustuko Unibertsitateak goiburu hori hartu du inspirazio iturri bere plan estrategiko berrirako: *Deusto Ekimena 2022: mundu berri baten alde elkarlanean.*

«Elkarlana» da gure izaeraren ezaugarrietako bat. Elkarlanean, Deustuko Unibertsitateko elkarte modura: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, ikertzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, alumni, familiak; bidea eta proiektua partekatuz, era askotako pertsona, instituzio, erakunde sozial, enpresa, eragile kulturalekin..., elkar hartuta, sarean lan eginez. Elkarrekin heldu gara honaino. Elkarrekin irabazi nahi dugu etorkizuna.

«Transforming» terminoak gure eginkizunaren zentzua zein den adierazten du: eraldatzea, berritzea, mundu bidezkoagoa, gizatiarragoa eta iraunkorragoa egiteko. Hortxe dago unibertsitate misioaren funtsa eta gure erronken ardatza: prestakuntza, ikerketa eta transferentzia, lidergoa eta konpromiso soziala... eraldatzeko, humanizatzeko. Langintza handi horri gure ekarpen xumea egin nahi diogu: mundua eraldatzen duten pertsonak.

«Gure mundua»z ari garenean, unibertsaltasunaz ari gara, Lagundiarenaz eta izena eta zentzua ematen digun universitas horretaz. Gure konpromisoak, ezinbestean, dimentsio globala du mundu elkarri lotuan eta elkarren mendekoan. Eta dimentsio global horrekin batera, dimentsio lokala ere bai, gure inguru hurbilekoa. Globala eta lokala dira gaur egungo munduaren bi aldeak. Eta «gure» mundua, da gaurko mundu honetako partaide eta erantzunkide sentitzen garelako.

Planaren egitura

Planaren oinarrian **bi printzipio inspiratzaile** daude, elkarren arteko lotura estua dutenak: Ignaziotar identitatea —gure izaera eta bereizgarria— eta gizarte eta ingurumen erantzukizuna —gure unibertsitate ekarpen espezifikoa—.

Bost lehentasun instituzional definitu eta formulatu dira: haietako hiru unibertsitatearen misioei —prestakuntza, ikerketa eta transferentzia, eta lidergoa eta gizarte konpromisoa— lotutakoak, eta beste bi pertsonei eta unibertsitate elkarteari eta gobernantzari lotutakoak. Bost lehentasun instituzional horiek **hamaika estrategia** eta **hogeita sei lanildo**ren bidez gauzatuko dira.

Planean, aldi berean, **zeharkako hiru ardatz** daude: nazioartekotzea, digitalizazioa eta aniztasuna; hirurek zeharkatu behar dute Deusto Ekimena 2022 goitik behera, estrategia eta ekintza guztietan ageri eta unibertsitateko jardun guztian eragin.

Azkenik, Planak **jomuga bat** definitzen du: Nazio Batuek 2015eko irailean planetaren garapen jasangarrirako ibilbide orri modura onartuko 2030 Agenda. Gainera, unibertsitatea erronka unibertsal horrekin lerrokatu eta plangintza estrategikoan modu eraginkorrean sartuz gero, aukera izango dugu Deustuk Garapen Jasangarrirako Helburuei (17 GJH) egiten dien ekarpenaren jarraipena egiteko.

Eta, Planaren oinarrian, **hautu bat:** arlo guztiak hobetzea, arlo batzuetan fokalizatu beharrean. Unibertsitateko jarduera gero eta korapilatsuagoa eta elkarreragin gehiagokoa da eta denean nahi dugu etorkizuna eta berrikuntza.

Deusto 2022

Ekimena: proiektu partekatua

Planaren elaborazio prozesua lau fasetan garatu da: analisirako eta diagnostikorako fasea, barruko eta kanpoko kontraste fasea, idazte fasea eta, azkenik, Gobernu Kontseiluak onartzeko fasea.

Lehen fasean, hainbat dokumentu aztertu ziren, kanpoko eta barruko erreferentziak eta *input*a. Lehenengoen artean, aipa ditzagun Jesusen Lagundiaren eta bere unibertsitate sektoreko (UNIJES, HEST, IAJU) oinarrizko dokumentu programatikoak, Nazio Batuen 2030 Agenda, Europar Batzordearen H2020 programa, Espezializazio adimentsurako RIS3 Estrategia, Euskadi Basque Country Agenda... Bestalde, barruko *input* dokumental modura, besteak beste, hauek erabili dira: indarrean dagoen 2015-2018 Plan Estrategikoaren eta hura garatzeko plan gidarien urteroko balantzeak, eta 2019-2022 Euskal Unibertsitate Sistemaren Planaren barruan egindako AMIA dokumentua.

Proiektua kontrastatzeko, barruko eta kanpoko prozesu zabal eta aberasgarria egin da. Unibertsitateko gobernu organo, zentro, unitate eta zerbitzu ia guztiek hartu dute parte, baita gure herriko instituzio, entitate, enpresa eta gizarte erakundeetako hainbat ordezkari adituk ere. Haien gogoeta, behaketa, proposamen eta kritikek balio izan dute, zalantzarik gabe, proiektua hobetu eta aberasteko. Gure esker ona denei.

Hurrengo orrialdeetan dago proiektua zehazturik: printzipio inspiratzaileak, lehentasun instituzionalak, estrategiak, lanildoak eta zeharkako ardatzak. Ibilbide hori egitea erabaki dugu 2022ko Deustura iristeko.

Nola irudikatzen dugu 2022ko Deustu?

- Aldaketarako prestago dagoen unibertsitatea, titulazio berriekin, eredu berriekin (duala, online, etengabeko prestakuntza).
- ▶ Unibertsitate globalagoa eta nazioartekoagoa, titulazioetan, prestigio eta balio handiko hitzarmen eta sareetan, ikerketan, proiektuetan, kulturan eta posizionamenduan.
- ▶ Unibertsitate sozialagoa, ikerketa eraldatzailea eta gizartean sendo eragitera bideratua duena, gure herriko proiektu estrategikoekin eta 2030 Agendarekin konprometitua, eta gizarte eztabaidetan parte hartzen duena.
- ▶ Bere misioaren eta proiektuaren inguruan kohesionatuago dagoen unibertsitatea, malguagoa eta gobernantza eredu berritua duena.

Ez da utopia, ez da ametsa; erronka da: zaila, asmo handikoa, ilusionagarria eta, batez ere, egiteko modukoa. Denon artean heldu gara honaino, denon artean egingo dugu errealitate bultzada berri hau: 2022ko Deustu. Deustuko Unibertsitateko emakumeak eta gizonak gure lemak dioena garelako, eta izan nahi dugulako: mundu berri baten alde elkarlanean diharduten pertsonak.



PRESTAKUNTZA ETA BALIOAK

Hezkuntza eredu propioa, berritzailea eta aintzatetsia, gizartearen eraldaketarekin konprometitua eta ikaslearen zerbitzura dagoena

A1 Deustuko Hezkuntza Eredua

- L1 Berrikuntza pedagogikoa
- L2 Tutoretza eta laguntza
- L3 Online prestakuntza

A2 Titulazioen mapa

- L4 Titulazio berritzaileak
- L5 Nazioarteko titulazioak
- **L6** Graduondokoak

A3 Unibertsitatea -Enpresa

- L7 Deustuko Hezkuntza Eredu Duala
- L8 Etengabeko prestakuntza
- L9 Ekintzailetza eta barne-ekintzailetza

IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

lkertzeko, elkarlanean sortzeko eta transferitzeko ekosistema eraldatzailea, ikerketak zientzian eta gizartean benetako inpaktua izan dezan

A4 Inpaktua zientzian eta gizartean

- L10 Taldeak eta plataformak
- L11 Kalitatea, inpaktua eta zabalkundea

A5 Nazioartekotzea

- L12 Nazioarteko proiektu lehiakorrak
- L13 Itunak, partzuergoak eta sareak

LIDERGOA ETA GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA

Ingurunearekin konprometitutako unibertsitatea eta gizartea eraldatzearen zerbitzura

A6 Deusto - Gizartea

- **L14** Elkarlaneko harreman eredua
- L15 Alumni
- L16 Egiaztagiriak eta rankingak

A7 Erreferente etiko eta intelektuala

- **L17** Elkarrizketa eta gizarteko eztabaida
- **L18** Garapen jasangarrirako ekarpena

Ignaziotar identitatea

Gizarte eta ingurumen erantzunkizuna

Nazioartekotzea

Eraldaketa digitala

Aniztasuna

PERTSONAK ETA UNIBERTSITATE ELKARTEA

Proiektuarekin identifikatu eta konprometitutako unibertsitate elkartea

- A8 Ikasleentzako esperientzia eraldatzailea
- L19 Parte hartzea eta erantzunkizuna
- **L20** Enplegagarritasuna
- A9 Garapen pertsonala, profesionala eta komunitarioa
- **L21** Prestakuntza eta garapen profesionala
- **L22** Berdintasuna, bateratzea, osasuna eta ongizatea lanean

ERAKUNDEA/ ANTOLAKETA ETA GOBERNU ONA

Antolaketa efizientea eta lidergo estrategikoa eta eragingarria

A10 Gobernua

- L23 Unibertsitateko eredua
- **L24** Iraunkortasun ekonomikoa

A11 Antolaketa

- L25 Bilboko eta Donostiako campusak eta Gasteizko eta Madrilgo egoitzak
- **L26** Azpiegiturak, ekipamenduak eta espazio irisgarriak



Ignaziotar identitatea

Gizarte eta ingurumen erantzunkizuna

Nazioartekotzea

Eraldaketa digitala

Aniztasuna



Transforming our world together

Gaur egun, unibertsitarioak izateko, itzelezko kultur *eraldaketa* irudikatu behar dugu, *mundua* denon espazioa dela, *geurea* dela, irudikatzeko gai izan behar dugu. Gizateria osoak irudikatu beharko luke horrela. *Elkarlanean* baino ezingo gara iritsi gaur egun planeta mehatxu pean dituzten ingurumenaren, politikaren, ekonomiaren eta gizartearen ahultasunak gaindituko dituzten irtenbideetara.

Nazio Batuen Erakundeak, **Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda**ren bitartez, dei egin digu edozein utopia etorkizuna babesteko helburu bihur dezagun. Nazioarteko komunitateak nondik nora jo behar dugun erakutsi digu, mundua goitik behera erortzea nahi ez badugu. Gure plan estrategikoa ondo moldatzen da norabide horretara. Bere egiten du, Deustuko Unibertsitateak denon onaren aldeko sentiberatasuna piztuko duen eraldaketa horrekin konprometiturik irakatsi, ikertu eta transferitu dezan jakintza.

Baina eraldaketa horretara iritsiko bagara, geure burua aldatu behar dugu. Aldaketa ez da gertatu behar gugandik kanpo eta urrun bakarrik. Gure plan estrategikoak denean eragin nahi du, sustatzen ari garen aldaketak gure unibertsitate elkartea —ikasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, ikertzaileak eta irakasle ikertzaileak—, antolaketako egiturak eta gobernantza sistemak ukitu ditzan, zein bere mailan.

Aldaketa horrek **ignaziotar espiritualtasuna** eta bertatik datorren **gizarte eta ingurumen erantzukizuna** ditu oinarri. Deustuk lortuko du «Transforming our world together» proposamenaren bidez entzuna izatea, bere sustrai espiritualak inspirazio iturri izanik. Sustrai horietatik sortu zen unibertsitate proiektuaren ideia, garai bateko beharrei erantzuteko pentsatua. Gure garaia desberdina da eta beste premia eta lehentasun batzuk dakartza. Plan estrategiko honek fede hori du inspirazio iturri, justizia besarkatzeko beste modu batzuk irudikatzen dituen fede hori hain zuzen ere. Gaur gizarte eta ingurumen erantzukizunaren bidez hezurmamitu nahi du justizia.



Nazioartekotzea

Unibertsitate euskalduna eta globala, sustrai sakonak dituena, mundura irekia, eta begirada eta bokazio unibertsalak dituena

Nazioartekoa, globala, unibertsala... ez dira aukerak gaur egun, oraingo eta etorkizuneko inperatiboak dira. Nazioartekotzeko konpromisoa elkarte osoaren helburua izan behar da, eta unibertsitateko jarduera guztietan egon behar da: irakaskuntzan, ikerketan eta transferentzian, eta gizartearekiko konpromisoan. Apustu egin dugu nazioarteko titulazioen alde, nazioarteko programa eta proiektuetan parte hartzearen alde, nazioarteko sare, partzuergo eta bazkide estrategikoak sendotu eta bultzatzearen alde, nazioarteko talentua erakartzearen alde... eta horrek garbi erakusten du unibertsitateak nazioartekotzearen alde egiten duela erabat. Hori bai, gure sustraietatik abiaturik, geure mundu ikuskeratik, eta Jesusen Lagundiaren espirituak eta balio unibertsalek adoreturik.

Eraldaketa digitala

Espazio, jarduera, zerbitzu eta prozesuen erabateko digitalizazio eraginkorraren alde egiten duen unibertsitatea

Eraldaketa digitala, lehenik eta behin, kultur aldaketa da eta, horretarako, teknologien erabilera optimizatu eta areagotu behar da, eta eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatu, beti ere Deusturen misioaren, ikuspenaren eta unibertsitate proiektuaren zerbitzura. Kontua ez da aldatzearren aldatzea, hobetzeko aldatzea baino; hau da, digitalizatzea balio handiagoa sortzeko eta erabiltzailearen esperientzia hobetzeko. Unibertsitateko elkarte osoa eta jarduera guztia ukitzen ditu, eta lidergoa eta sinesmen sendoa, malgutasuna eta bizkortasuna eskatzen. Eraldaketa digitalak ereduak, prozesuak, ikuspegiak, harremanak eta gaitasunak eztabaidatzea, egokitzea eta birdiseinatzea dakar, arlo guztietakoak; horregatik aplikatuko zaie irakas-ikasteko prozesuei, ikerketa eta transferentzia helburu berriei eta erakundeari berari ere. Eta hori guztia helburu bakarra dugula: gure unibertsitatearen ekarpen eraldatzailea hobetzea.

Aniztasuna

Aniztasuneko bizikidetza eredu berritzaile eta erreferentziakoarekin konprometitutako unibertsitatea

Aniztasuna gure garaiko zeinua da eta ez dugu hartzen errealitate saihestezina balitz legez, baizik eta zaindu beharreko balio positibo modura. Aniztasun horrek pertsonaren arlo guztiak hartzen ditu: arraza, etnia, erlijioa, ideologia, kultura, gizarte maila, funtzionaltasuna, sexu orientazioa... Deustu, bere campusak, ikasgelak, klaustroak, aniztasun horren erakusgarri onak dira. Ignaziotar identitate irekia eta inklusiboa oinarri izanik, Deustuk konpromisoa hartzen du aniztasuna balio positibo gisa bizitzeko eta aniztasuneko bizikidetza naturaleko eredu bat garatzeko.

Eleaniztasuna aniztasun horren isla da, eta hizkuntzen bizikidetza adierazpen garrantzitsuenetako bat. Deusturentzat aniztasuneko bizikidetzak hizkuntzen bizikidetza ere esan nahi du. Gaur egun, bi arlo azpimarratu behar ditugu: euskararen aldeko ekintza positiboa eta beharrezko hirueletasunera iristeko aurrerapausoak.





- ▲1 Deustuko Hezkuntza Ereduan sakondu. Eredu integrala eta esperientziala da eta lau arlo lantzen ditu: ezaupideak eskuratzea, gaitasunak garatzea, balioetan heztea eta konpromiso etikoa barneratzea
- Berrikuntza pedagogikoa, ikerketa eta metodologia berritzaileen aplikazioa lideratu, Deustuko zeharkako gaitasunen vademecuma onartu eta ezarri, eta irakasle-ikertzaileek garapen profesionalerako Docentia programan parte hartu eta akreditazioa lor dezaten sustatu

Deustu urteetan aritu da hezkuntza eredu propioa eraikitzen eta garatzen: Deustuko Hezkuntza Eredua. Eredu hori hiru norabidetan sakontzen jarraitu nahi dugu: metodologia berritzaileak garatu nahi ditugu, —arazoetan oinarritutako ikaskuntza, esaterako—; zeharkako gaitasunen esparru berri bat ezarri nahi dugu —Deustuko Unibertsitateko ikaslearen gaitasunen label bereizgarria—; eta irakasleek irakas-ikaskuntzako eta ebaluazioko metodologien, prozesuen, euskarrien eta kalitate sistemen berrikuntzarekin duten konpromisoa sendotu nahi dugu.

L2 Ikasleen tutoretza eta laguntza pertsonalizatua sendotu

Tutoretza eta laguntza ezinbestekoak dira ikaslearen garapen osoa bermatzeko. Hori dela eta, garrantzi handikoa da orientaziorako kultura sendotzea, hau da, batetik, tutoreei beren eginkizuna betetzeko laguntza ematea eta, bestetik, baliabide didaktikoen eta informazio baliabideen eskaintza indartzea, erantzun egokia emateko bai premia akademikoei (ikasteko ohiturak eta teknikak, errendimendua, motibazioa...), bai afektiboei eta emozionalei (antsietatea maneiatzea, erabakiak hartzea, gizarteko trebetasunak...). Orientazio hori, gainera, ikasleen unibertsitate aurreko faseetan hasten da.

Online prestakuntza eredua garatu, eredu presentzial eta erdi-presentzialekin elkarreraginean; prestakuntza prozesuetan teknologien erabilera areagotu eta eraginkorrago egin; eta gaitasun digitalak gehitu titulazio guztietan

Konpromiso sendoa hartzen dugu *online* prestakuntza garatzeko eta geure eredua eta estrategia sortzeko. Konpromiso hori gauzatzeko, *online* prestakuntza berria eskainiko da —batez ere hartzaile berriei zuzenduko zaie eta, beti ere, Deustuko Hezkuntza Ereduaren kalitate eta bikaintasun estandarren arabera—, eta sinergia eta formatu interaktiboak ezarriko dira modalitate presentzial, erdi-presentzial eta birtualen artean.

P1 Prestakuntza eta balioak .

A2 Titulazioen mapa eguneratu

Gizartearen erronka eta jakintzaren muga berrietara eta Osasun Zientzien arloa garatzera bideratutako titulazioen diseinua eta ezarpena sustatu

Deustuko hezkuntza mapara titulazio berriak ekarriko dira jakintzaren mugak zabaltzeko eta gizartearen erronka berriei heltzeko baliagarri diren arloetan. Bultzada berri horren ildoetako bat Medikuntzako gradu berriaren proiektuarekin lotuta dago, gradu horretatik abiatuta Osasun Zientzien arloa garatuko baitugu etorkizunean, osasuneko profesionalen prestakuntzaren erreferente bihurtzeko asmoz.

15 Nazioarteko eta baterako titulazioen diseinua eta ezarpena bultzatu

Curriculuma nazioartekotzeak esan nahi du nazioarteko, kulturarteko eta/edo mundu mailako dimentsioak ekartzea prestakuntza prozesuaren fase guztietara eta unibertsitatearen kulturara ere bai. Titulazio berriei dagokienean, Nazioarteko Titulazioen Plan Gidariak hiru aurrerabide proposatzen ditu: gaur egun ditugun titulazioen ikasketa planen nazioartekotzea sustatzea, ingelesezko titulazio berriak eta/edo bateratuak diseinatzea, eta nazioarteko praktika programak eta dualak garatzea.

| 6 Graduondoko eskaintza berrantolatu eta bultzatu

Graduondoa Deustuko Unibertsitateko politika akademikoaren funtsezko eta beharrezko arloa da. Graduondoko titulazioen mapa ez da izan behar programen batuketa aritmetikoaren emaitza, baizik eta hainbat printzipio eta aldagai aintzat hartu eta uztartuko dituen estrategia proaktiboarena. Asko dira gogoan izan beharreko aldagaiak: master ofiziala / propioa / profesionalizatzailea / eskariaren araberakoa...; estatuko eta nazioarteko posizionamendua, talentuaren erakarpena, eragin zientifikoa eta soziala, bideragarritasun ekonomikoa, diseinu eta eraketa malgua; eta lankidetza, itunak eta sareak.

43 Unibertsitatearen eta enpresaren arteko harreman eredu propioa eta integrala garatu

7 Deustuko Hezkuntza Eredu Duala garatu

Deustuk Deustuko Hezkuntza Eredu Duala diseinatu eta ezarriko du pixkanaka. Eredu horrek unibertsitatearen, enpresen eta erakunde kolaboratzaileen arteko prestakuntza prozesuaren erantzukidetasuna sustatuko du, bai eta ikasleen gaitasunen garapen handiagoa ere etorkizuneko erronka profesionalei eta pertsonalei aurre egiteko. Eredu horren ildotik, Erraztaileen Eskola sortuko dugu, prestakuntza dualeko prozesuetan parte hartzen duten agenteak prestatzeko oinarrizko unitatea.

Etengabeko prestakuntzarako eredu integrala diseinatu eta ezarri

Bizitzan zeharreko prestakuntzaren beharra ez da koiunturala; eskaera estrukturala da dagoeneko. Eskaera horrek erronka jo die unibertsitateei, egoera berrira lehenbailehen egokitu daitezen. *Executive* prestakuntzaren *expertise*a eta ahalmena baliatuta, Deustuko Etengabeko Prestakuntzako Ereduak modu integralean erantzungo dio eskaera horri, agente ekonomiko eta sozialekin lankidetzan garatuko dugun askotariko programa eta formatuko eredu baten bitartez.

Deustuko Ekintzailetza Ereduan sakondu, eta berrikuntzarako, ekintzailetzarako eta barne-ekintzailetzarako kultura ezarri, ikasprozesuaren fase guztietan

Aldaketaren eragile izateko eta garapen ekonomiko eta sozialari ekarpena egiteko bokazioa izanik, Deustuk kultura berritzaile eta ekintzailea sustatu nahi du. Horretarako, Deustuko Ekintzailetza Eredua garatuko dugu. Eredu horrek arreta berezia jartzen die ikasprozesuaren fase guztiei eta ekintzailearen irudiari —ekintzailetzat hartuta bai bere negozio proiektua sustatzen duena, bai lehendik dagoen enpresa batean ekintzaile lana egiten duena—.

P2 Ikerketa eta transferentzia



A4 Gizarteko erronkei erantzungo dien jakintza eraikitzera bideratutako ikerketan, elkarlaneko sorkuntzan eta transferentzian sakondu

Kultura zientifikoa, ikertaldeak, haien kalitatea, gaitasuna eta egiaztapena, eta diziplinen eta sektoreen arteko lankidetzarako espazio eta plataformak sendotu eta sustatu

Kultura zientifikoa sustatuko dugu, bi elementu garrantzitsu baliatuz: ikertzaileak eta ikertaldeak, biak ere kanpoko ebaluazio agentziek egiaztatuak. Ikerketa gizarteko erronkei erantzutera bideratzeko, beharrezkoa da ikerketarako kualifikazio eta esperientzia aitortua duten pertsonak eta ikertalde lehiakorrak elkarlanean aritzea beste talde eta diziplina batzuekin, eta hainbat agente sozialekin ere bai: administrazio publikoarekin, enpresen sarearekin, hirugarren sektorearekin, mundu profesionalarekin edo elkarteen sarearekin.

[]] Ikerketaren inpaktu zientifiko eta soziala eta zabalkundea eta transferentzia hobetu, baita ikasprozesuan hobeto txertatu ere

Konpromisoa hartzen dugu gure ikerketan bikaintasun zientifikoa eta gizartea eraldatzeko helburua uztartzeko. Bikaintasunak bi erakusgarri ditu: batetik, ikerketa prozesuen kalitatea, irizpide eta arau etikoen errespetua ere aintzat hartzen duena; eta, bestetik, ekoizpen zientifikoaren inpaktua, kanpoko ebaluazio eta balioespenen bitartez bideratu ohi dena. Emaitzak hedatzeko, ustiatzeko eta transferitzeko planen bidez gizarteratzen dira, eta haietan identifikatzen da zein diren interes-taldeentzako ekarpen berritzaileak eta balio erantsi handikoak.

A5 Parte hartze handiagoa izan ospe eta balio handiko nazioarteko itun, partzuergo eta sareetan

Parte hartze handiagoa izan nazioarteko sare, programa eta proiektu lehiakorretan, bereziki Europakoetan

Elkarlaneko ikerketarako kultura eraikiko dugu era honetan: sareko eta diziplinarteko sareen eta partzuergoen arteko lana indartuz; itun estrategikoak eginez; sinergiak batuz unibertsitatearen bikaintasun zientifikoaren eta tokiko, eskualdeko, Europako eta nazioarteko agenteen esperientzia eta berrikuntzaren artean; RIS3 estrategiarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat eginez; eta ikerketa nazioartekotzeko estrategia indartuz, horretarako proposamen lehiakorrak (H2O2O, Horizon Europe, Osasun Programa ...) eta beste finantzabide pribatu batzuk lortuz.

Era aktiboan parte hartu Jesusen Lagundiarekin loturiko sare, programa eta proiektuetan: elkartasuna, lankidetza eta gizarte ekonomia; ekologia eta ingurumen justizia; migrazioak eta errefuxiatuak; berdintasuna; erlijioen arteko elkarrizketa; bakegintza eta adiskidetzea; Ignaziotar espiritualtasuna, lidergoa eta pedagogia

Elkarlaneko ikerketarako kultura horren barruan, Jesusen Lagundiaren sareekin eta proposatzen dituen lehentasunekin bat egiten dugu. Lagundiak hainbat sare eta plataforma ditu, bai hurbileko toki eta testuinguruekin konprometituak, bai nazioartekoak. Lan arloak Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokaturik daude.

P3 Lidergoa eta gizartearekiko konpromisoa _____

Ingurunearekin konprometitutako unibertsitatea eta gizartea eraldatzearen zerbitzura dagoena

A6 Erakunde, enpresa eta gizarte entitateekiko harremana sendotu

Lankidetzaren eta konpromiso partekatuaren printzipioei balioa ematen dieten harreman eredu berriak sustatu

Deustu unibertso plurala, irekia eta sarekoa da. Unibertsitateaz gain, pertsonak, erakundeak, entitateak, enpresak eta gizarte erakundeak dira unibertso horretako kide. Orain, ohiko hitzarmen bidezko harreman formal eta puntualak zabaldu nahi ditugu, elkarlaneko harreman estrategikorako bidea egiteko eta gizartearen erronka handienei elkarrekin erantzuteko. Harreman eredu horretan, unibertsitateak eta agenteek hartu behar dute parte elkarrekin prestakuntza prozesuetan, jakintzaren sorkuntzan eta transferentzian, eta gizarte erantzukizunean.

Alumni sarea sustatu, Deusto marka eta proiektua indartzeko, baita sare lana, eta Deustuk gizartean dituen presentzia, eragina eta posizionamendua ere

Deustuko tituludunak unibertsitatearen eta gizartearen arteko zubia eta lotura dira eta, horrenbestez, funtsezko aktiboak dira pertsona eta profesional moduan prestatzen lagundu dieten unibertsitate marka, proiektua eta balioak hedatzeko. Deusto Alumni, Deusto Business Alumni eta Deusto Law Alumni elkarteekin harremanak indartzeak Deustuko tituludunen partaide sentimendua eta haiekiko lotura sendotzea dakar eta, horrekin batera, Deusto proiektuaren tokian tokiko posizionamendua eta mundu mailakoa hobetzea ere bai.

Deusturen posizionamendua hobetu nazioarteko, estatuko eta Euskadiko egiaztagirietan

Monitorizatzea, neurtzea, ebaluatzea —proiektuarekiko fideltasuna, aldaketari egiten diogun ekarpenaren garrantzia...— ezinbestekoa da aurrera egiteko. Azken urteetako politika indartu eta gure partaidetza areagotu nahi dugu unibertsitateen egiaztapen sistema eta ranking ospetsuenetan, jakinik, ikuspegi partzialak badarabiltzate ere, neurtzeko tresna unibertsalak eta estandarrak direla. Arreta berezia jarriko diegu nazioarteko egiaztagiri eta rankingei eta Jesusen Lagundiaren obrak ebaluatzeko sistemei.

.P3 Lidergoa eta gizartearekiko konpromisoa

A7 Ekarpen etiko eta intelektuala egin gizarteko eztabaidari

Solaserako espazioak sortu eta eztabaida publikoetan ageri eta modu aktiboan parte hartu, unibertsitateari dagokion ekarpena eginez

Prestakuntzarekin eta ikerketarekin batera, unibertsitateak gizartean agertzeko eta konprometitzeko misioa ere badu. Deustuk bere ahotsa entzunarazi behar du gizarteko eztabaidan, bereziki honelako gaiak darabiltzanean: pertsonaren duintasuna, giza eskubideak, justizia soziala, askatasuna edo ekologia. Ahots askea, arduratsua, gogoetatsua, konprometitua eta eraikitzailea izan nahi dugu. Konpromisoa hartzen dugu, era berean, ahotsik ez dutenei ahotsa emateko, bereziki egoera ahulenean dauden biktima eta kolektiboei.

Unibertsitateak gizartean duen inpaktua eta garapen jasangarriari egiten dion ekarpena ebaluatu

Jardueren inpaktu soziala zenbatekoa den ebaluatzea, gero eta beharrezkoagoa izateaz gainera, betebehar sozial eta etikoa ere bada, batez ere erakundeetan, hala nola unibertsitatean, eraldaketarako eragile nagusiak baitira. Deustuk inpaktua aztertzeko eredu holistikoa garatuko du; hau da, zuzeneko eta zeharkako emaitza ekonomikoak neurtzen dituzten metodo kuantitatiboetatik haratago joango da eta dimentsio berriak eta elementu kualitatiboak ere hartuko ditu kontuan, garapen jasangarrirako ekarpenaren ebaluazio osoa egiteko.

P4 Pertsonak eta unibertsitate elkartea _



A8 Ikasleentzako unibertsitate esperientzia eraldatzailea sustatu eta pertsona konpetente eta konprometituak izan daitezen lagundu

[] 9 Ikasleek unibertsitateko esperientzian parte eta erantzukizuna har dezaten sustatu

Hezkuntza integralak esperientziak eragin behar ditu, pertsona kontziente, trebe, bihozbera eta konprometituak prestatzeko. Denon eginkizuna da elkartea eraikitzea, baita, eta bereziki, ikasleena ere. Parte hartzea eta erantzukide izatea dira eginkizun horren bi ardatz. Ikasleek parte hartze aktiboa eta erantzukidea dute eta izaten jarraitu behar dute —zuzenean eta euren ordezkarien bitartez— euren prestakuntzarekin lotuta dauden arlo guztietan: jarduera akademikoan, unibertsitateko bizitzan...

L20 Tituludunen enplegagarritasuna, laneratzea eta garapen pertsonala eta profesionala hobetzen lagundu

Profesional trebeak eta oso kualifikatuak izatea eta pertsona arduratsuak eta gizartearen aldaketarekin konprometituak izatea txanpon beraren bi aldeak dira. Gure tituludunen enplegagarritasuna lehentasunezko helburu dugu. Eragile ekonomiko eta sozialekiko lankidetza iraunkorrerako espazio berriak sortuko ditugu, helburu bikoitzarekin: gure tituludunei lan merkatuan sartzen eta lanbidean garatzen laguntzeko, eta enpresa eta erakundeen beharrei erantzuteko.

P4 Pertsonak eta unibertsitate elkartea

A9 Garapen pertsonala, profesionala eta komunitarioa sustatu

Unibertsitateko langileen gaikuntza, etengabeko prestakuntza eta garapen profesionala, eta unibertsitateko proiektuekin duten konpromisoa bultzatu

Pertsonak dira garrantzitsuenak beti edozein proiektutan. Irakasle-ikertzaileak, ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak dira Deustuko Unibertsitatearen egitasmoaren bihotza. Modu berezian zainduko ditugu pertsonak hartzeko prozesuak; etengabeko prestakuntzako eskaintza berria sustatzen jarraituko dugu, premia eta beharrei erantzuteko; eta garapen pertsonala, profesionala eta komunitarioa bultzatzeko aukera berriak sustatuko ditugu irakasle-ikertzaile, ikertzaile eta zerbitzuetako langileentzat.

Politika aktiboak garatu berdintasunerako, familiako bizitza eta lana bateragarri egiteko, osasunerako eta laneko ongizaterako

Mundu bidezkoagoa, gizatiarragoa eta jasangarriagoa lortzea eta gizartea eraldatzeko ekarpenak egitea unibertsitatean bertan ezarri beharreko helburuak dira lehen-lehenik. Berdintasuna, familiako bizimodua eta lana bateragarri egitea, osasuna eta ongizatea helburu horiekin lotutako balioak dira. Unibertsitate elkartearen parte hartzearekin, jarraituko dugu politika aktiboak sustatzen, Deustuko elkartea berdintasunean eta ingurune osasungarrian bizi dadin.

P5 Erakundea/Antolaketa eta gobernu ona_

Antolaketa efizientea eta lidergo estrategikoa eta eragingarria

A10 Gobernantza sistemarik onena jarri erakundean, lidergo estrategikoa izateko, proiektuaren eta beraren garapenaren zerbitzura

L23 Berriro definitu egitura, antolaketa eredua eta prozesuak eta sistemak, behar berriei egoki erantzuteko eta unibertsitateko proiektuaren helburuak gauzatzeko

Deustuko gaur egungo egiturak eta gobernantza ereduak matrize-eskema baten arabera eratzen ditu fakultateak —jakintza arloka—, errektoreordetzak, unitateak eta zeharkako laguntza zerbitzuak. Horrek hainbat premiari azkar erantzun eta moldatu beharra dakar eta, ondorioz, bi printzipio sendotu behar ditugu: bizkortasuna eta malgutasuna, erantzun egokia eman ahal izateko jarduera akademi-koaren arlo guztietan sortzen diren erronka berriei.

Finantzabide berriak aztertu eta iraunkortasun ekonomikoa segurtatu epe labur eta luzean, Deusto proiektuaren izaera eta helburu soziala sendotzeko

Iraunkortasun ekonomikoa ezinbesteko baldintza da Deusto unibertsitate proiektuak eta bere helburuek iraun dezaten, hots, prestakuntzak, jakintzaren sorkuntzak eta transferentziak, eta gizarteko lidergoak eta konpromisoak. Iraunkortasun ekonomiko horrek, bestalde, ezinbesteko oinarri bat du: izaera sozialeko eta irabazi asmorik gabeko proiektua izatea. Hori dela eta, lehentasuna emango diegu helburu batzuei, garatzeko finantzaketa plana prestatuko dugu eta lankidetza berriak bilatuko ditugu ildo estrategikoak finantzatzen laguntzeko.

P5 Erakundea/Antolaketa eta gobernu ona

A11 Campusak eta egoitzak eta bertako espazioak, azpiegiturak eta ekipamenduak garatu

L25 Berariazko estrategiak diseinatu Bilboko eta Donostiako campusak eta Gasteizko eta Madrilgo egoitzak garatzeko

Deustu hiriko unibertsitatea da eta kokapen anitzekoa: Bilbon eta Donostian ditu campusak, eta Gasteizen eta Madrilen egoitzak. Ideario bat, misio bat, unibertsitate proiektu bat eta plan estrategiko bakarra, denena eta partekatua, edukita, bi campusek eta bi egoitzek berariazko estrategiak garatu behar dituzte zeinek bere inguruan ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko, bertako beharrei egoki erantzuteko, eta gertuko erakunde eta eragileekin harreman zuzenagoa izateko.

Espazioak, azpiegiturak eta ekipamenduak berritu eta modernizatu, kontuan izanik funtzionaltasuna, teknologia eta metodologia berrietara egokitu beharra, ingurumen jasangarritasuna eta irisgarritasun unibertsala

Deustu konprometituta dago teknologia eta metodologia berriekin, ingurumenaren zainketarekin eta irisgarritasun unibertsalarekin. Espazioak egokitzeko eta berritzeko eta azpiegitura eta ekipamendu berriak eraikitzeko politika dugu konpromiso horren frogarik argienetako bat. Hori guztia egoki betetzeko digitalizazioak, irisgarritasun unibertsalak eta ingurumenaren babesak dakartzaten eginbeharrak, Deustu gero eta elkarte jasangarriagoa eta inklusiboagoa izan dadin.

Transforming our world together



The University and its community repeatedly ask themselves about their purpose, their action, and their service. The question that emerges is: «where am I going, and what is my goal?» Analysis and reflection are part of the university's work. In a fast-changing world, it is necessary to review the course being followed, and bring a new impetus to it. We cannot remain complacent about our history and our achievements.

A new plan requires looking at reality anew, actively examining the needs, the problem areas, and the new emerging forces. This involves examining what is the most urgent; what will render the greatest service; what is the most lasting; and what best suits our university's way of being and acting.

We are aware of our history. Our university was born in the late nineteenth century in response to the needs of a society that sought to provide university education to the youth living in an emerging industrial city. We have adapted to the educational needs of society over time, and have become a pioneering institution in important areas such as law, business, and the humanities. In an ever-changing society, we have always maintained our principles, and have managed to face the new challenges of technology, internationalisation and innovation. Our openness and social commitment have led the University of Deusto to have a presence not only in Bilbao, but also in Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz and Madrid. We have always had a culture of leadership and service to the community, which has made Deusto a benchmark for academic excellence. The University of Deusto today continues the work carried out by the universities of the Society of Jesus within a tradition that has lasted for almost five hundred years, and has brought its mission in line with present-day challenges. This has been made possible by relying on our roots and taking a broad perspective, in order to continuously update our mission.

One of our hallmarks is our Christian view of reality, a humanist approach, and an all-round education that reaches all the dimensions of the individual, which includes an openness to transcendence. This humanism does not operate individually, but has a strong component of service, which seeks social transformation and the promotion of justice. It also aims to generate opportunities, and is inspired by social awareness, and by the principles of equality and inclusion.

